

ALDERANTZIZKO MISIOAREN EBALUAZIOA

Gaur egun gauden egoeran, ezinbestekoa da gure nazioartekotze-estrategiak egituratu ditugun mugikortasun-ereduak berriz pentsatzea eta zalantzan jartzea.

Premisa horretatik abiatuta antolatu dugu **Alderantzizko Misioa 2020**, eta helburua ez da soilik gogoeta egitea eta estrategia berriak aurkitzea, baizik eta ADDEko bazkideei ezagutzak eta kontaktuak ematea zalantza handiko une hauetan.

Alderantzizko misioak bi atal izan zituen:

1. **Hitzaldia-topaketa** ACT Jaialdiaren testuinguruan antolatu zen. Nazioarteko eta tokiko 4 hizlari gonbidatu ditugu, une honetako mugikortasunari buruz hausnartzeko.

Hizlariak hauek izan ziren:

Laura Kumin, *Madrilgo Lehiaketa Koreografikoa eta Aerowaves*.

Carlotta Garlanda, *Liv. Ing eta MK Dance Company*.

Teresa Brayshaw, *Leeds Met University*.

Imanol Otaegi, *Etxepare Institutua*.

Jemima Cano (*Itzulpengintza*)

2. **Nazioartekotzeari eta mugikortasunari buruzko mentoriak Laura Kumin eta Carlotta Garlandarekin**, ADDEko kideek beraien konpainien estrategiak garatu ahal izateko tresna zehatzagoak emateko antolatu zen.

1. **Hitzaldia-topaketa** azaroaren 7an antolatu zen Bidebarrietako Liburutegian, ACT Jaialdiaren testuinguruan eta SHIFT KEYrekin lankidetzan, Europa Creativa-k diruz lagundutako kooperazio-proiektua.

Topaketa *streaming* bidez egin zen, eta aurrez aurre zein Online jarraitu ahal izan zen, Zoom-en Web Mintegi baten bidez.

Hitzaldiak ordu eta erdi iraun zuen, eta publikoegin genuen handik astebetera online ikusgai egoteko. 47 pertsona inguruk ikusi zuten hitzaldia.

Topaketa horretatik mugikortasunari buruzko ideien dekalogo bat sortu da, hitzaldiaren oharra eta ideiak biltzen dituen, eta datozen egunetan argitaratuko da.

Topaketa bereziki interesgarria izan zen, mugikortasunari buruzko hainbat ikuspegi eman baitzituen une horretan, mugikortasunaren ikuspegi "holistikoa" emanez hizlarien esperientzien eta bizipenen bidez.

2. Nazioartekotzeari eta mugikortasunari buruzko mentoriak Laura Kumin eta Carlotta Garlandarekin egun desberdinetan antolatu ziren, eta bi ereduren arabera egituratu ziren:

Laura Kuminek 20 minutuko banakako mentoriak egin zituen ADDEko 7 kideekin.

Carlotta Garlandak talde-saio bat antolatu zuen, eta 6 parte-hartzaile izan ziren. Planteatu ziren ariketa espezifikoek gain, saioa interesgarria izan zen bai parte-hartzaileentzat bai elkartearentzat, mugikortasunaren inguruan beharrezkoak ziren ekintza-puntuak identifikatzeko.

EMAITZA

ADDE esperientziari buruzko parte-hartzaileen ebaluazio bat jasotzeko prozesuan dago, eta Carlotta Garlandarekin elkarlanean egindako **"mugikortasunerako eta nazioartekotzeko baliabide-sorta"** bat prestatzen ari da.

Covid-19rekin zegoen egoera eta pixkanaka ezarritako neurri-sortak direla eta, ekintzaren formatua ezin izan zen behin betiko zehaztu azken unera arte. Horrek eragina izan zuen jende kopuruan eta deialdiari emandako erantzunean; izan ere, sektorea higitu samar dago, eta ohiko prekarietateari pandemiak eragindako ziurgabetasuna gehitu behar zaio.

Ikusi dugu "nazioarteko banaketaren" inguruko prestakuntza behar dela dantzaren arloan, zeregin horretan aritu nahi duen agente nahikorik ez dagoelako.

Hori dela eta, baliteke 2021era begira nazioarteko banaketaren inguruko ekintzak antolatzen jarraitzea; izan ere, estrategiarik eza edo sortzen ari diren konpainietan estrategiak garatzeko zailtasuna ez ezik, zeregin hori ibilbide luzeagoa duten konpainien esku uzteko zailtasuna ere ikusi dugu, eta horrek zaildu egiten du egitura txikiak dituzten konpainien merkatuak eta baliabideak ustiatzea.